

FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren IV Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren IV. Edizioaren —2016/2017 ikasturtea— Artea eta Giza Zientziak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 15 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako bi lan hauei ematea erabaki du:

Euskaraz:

“Sexua eta generoa Judith Butlerren lanean: (des)eraikuntzari buruz”

Gaztelaniaz:

“LA FEMINIDAD EN EL ARTE DE WATERHOUSE. OFELIA Y LA DAMA DE SHALOTT”

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiak 2018ko otsailaren 16a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza, <http://www.berdintasuna.ehu.es> web orrian, honako hauen berri emanaz: irabazlearen izena, tutorearen izena eta zein Gradu eta Ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen izenburua eta laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

Amaia Elejabarrieta Uribe

Filosofian gradua. (HEFA Fakultatea)

Tutorea: Miren Arantza Etxeberría Agiriano

Sexua eta generoa Judith Butlerren lanean: (des)eraikuntzari buruz

LABURPENA:

XX. mendean zehar, mugimendu feministak emakumearen opresioa sexu eta genero kontzeptuen dikotomian oinarritzen dela planteatzen hasi ziren eta bi kontzeptu hauek gizartean bizi ahal izateko arauen normalizatzaile lez funtzionatzen zutela. Historian zehar naturalizat hartutako ideiak (hala nola, sexu-genero dikotomia zein biko sexu-sistema) zalantzan jartzen hasi ziren momentuan mugimendu feministek aukera bat ikusi zuten emakumeen ahalduntze prozesuari ekiteko bide horretatik. Lan honen bitartez, sexu-genero kontzeptu horiei buruzko hausnarketa kritiko bat bideratuko dugu Judith Butler autorearen ideiak oinarri gisa hartuz.

Horra heldu ahal izateko, lanaren lehenengo atalean sexu-genero sistemaren jatorriari buruzko ekarpen teoriko orokor batzuk aztertuko ditugu. Kontzeptu horien jatorri mediko eta teoriko-kulturalari jarraiki, konturatu gaitezke sistema dikotomiko honek bi alde izan dituela: emakume asko historikoki askapen bidera eramán dituen aldea da bata, eta bestea, sistematik at geratzen direnen aldea (intersexualak, esaterako). Sistemarekin bat ez datozen gorpuzkerak ez baztertzeko, pausu bat gehiago ematea beharrezkoa da.

Aurreko ideiei segida bat emanez, lanaren bigarren atalean Judith Butlerren teoria aztertuko dugu bai generoarekiko bai sexuarekiko. Butlerrek uneoro aldarrikatzen du biak eraikiak eta performatiboak direla eta arau normalizatzaile bezala funtzionatzen dutela gizartean. Hori dela eta, ahalduntze prozesuan baliagarriak izan daitezkeen praktika subertsiboak eraikuntza horren zalantzagarritasunetik abiatu behar dira. Butlerrek bi kontzeptuak eraikiak direla erakusten du deseraiki egin behar direla aldarrikatzeko.

Lanaren hirugarren atalean, Butlerren eraikuntza kontzeptuak dakartzan kritikak aztertuz, bere planteamendu subertsibo horren garrantzia ulertzen saiatuko gara. Generoaren performatibitatearen teoria eta sexuaren eta sexualitatearen eraikuntza azaltzen zaizkigu ideia berritzaile eta askatzaile lez. Horien bidez, Butlerrek identitate kategoriaren liberazio bat aldarrikatzen du, inposatutako identitateak iraultzeko posibilitatea bistaratuz.

Beraz, lan honen xedea ez da inolaz ere izango kategoria berriak eta inklusiboagoak proposatzea edo aldarrikatzea. Lan honen helburu nagusia operatzen ditugun kategorien hausnarketa kritiko bat aldarrikatzea da,

kategoria horien deseraikuntzara heldu ahal izateko. Ideal politiko gisa, bizi ditugun kategorien etengabeko hausnarketa aldarrikatzea da lan honen helburua.

Gaztelaniazko eginiko lanaren Irabazlea:

Lara Goikoetxea Armijos

Artearen Historiako gradua (Letren Fakultatea)

Tutorea: Fernando R. Bartolome Garcia

LA FEMINIDAD EN EL ARTE DE WATERHOUSE. OFELIA Y LA DAMA DE SHALOTT

LABURPENA:

John William Waterhouse es un pintor de mujeres en la Inglaterra Victoriana, un período en el que la situación de la mujer en la sociedad estaba en continua negociación y redefinición en un marco de tensiones entre los deseos feministas de emancipación y el afán de la mayoría de los hombres por seguir monopolizando el espacio público. Una de las reacciones masculinas a la amenaza de la emergencia de la «mujer nueva» fue la de bombardear a la fémina con imágenes aleccionadoras de la mujer, cuyo ideal había sido efectivamente fijado por la burguesía. En este contexto emergen los arquetipos femeninos de Ofelia y La Dama de Shalott, considerada la primera la quintaesencia de la construcción ideológica de la feminidad, y la última una transgresora que constituye el ejemplo a no seguir y que recibe un castigo modélico. A través de estos bellos mártires veremos cómo la cultura visual participa del discurso patriarcal sobre la mujer y opera como un dispositivo de control social que adoctrina a los espectadores sobre las subjetividades que le corresponden. Con la herramienta metodológica que propone la crítica feminista funcionando de base, pondremos de relieve el vínculo que estos iconos femeninos tienen con la ideología y los usos burgueses del período.